



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2020/9

DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAUBIDEAN EMATEKO DEIALDIA, 2020an
UNEAN UNEKO SENTSIBILIZAZIO JARDUKETAK GAUZATZE ALDERA (USJ)

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)[n](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

Iruñeko Udalak, 2020ko aurrekontuan, 1.279.772,30 euroko zenbatekoa aurreikusi du Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programa gauzatzeko, herrialde pobreenetako komunitate behartsuenei laguntze aldera.

Gure mundu honetan, non Iparraren eta Hegoaren arteko desorekak gero eta handiagoak izaki pobrezia-maila areagotu egiten baita eta oinarritzko gabeziak, gizarte-tentsioak eta epe luzerako pobretze-prozesuak sortzen baitira, beharrezkoa dugu gizarte bidezkoago, sentikorrago eta solidarioago baten alde lan egitea, hori oinarri harturik herrialde ororen garapena sustatzeko, betiere errespetua, elkarrizketa, lankidetzeta eta gizarte-egitura indartuz.

Testuinguru horretan, Iruñeko Udalak aurten abiatu duen Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea (2018-2021) garatu eta finkatzeko tresna izan nahi du deialdi honek.

Halaber, deialdi honek Udalaren tresna bat izan nahi du Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrak 2015eko irailean egindako goi-bileran proposatutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetze aldera. Aipatu bileran, hain zuzen, onetsi zuten NBEko kide diren estatuek Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda.

Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programak honako jardute-ildo hauek ditu oinarri:

a) Sentsibilizazio jarduerak finantzatzea beste batzuekin batera, betiere Hegoaldeko herrialdeen egoera, egoera horren zio eragileak eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak ardatz hartuta.

b) Garapenaren aldeko gobernu kanpoko erakundeek (GGKE) garapenaren alde eginiko proiektuak finantzatzea beste batzuekin batera, bi helbururekin, hots, Hegoaldearen garapenaren alde aritzea eta Udalbarrutiko elkarte solidarioen sarea bizkortzea.

c) Larrialdietako jarduketak humanitarioetan laguntzea.

d) Udalaren zuzeneko inplikazioa Hegoaldeko toki-erakundeekin, lankidetzeta proiektuetan.

e) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) sortu duen Lankidetzako Toki Funtsean parte hartzea.

f) Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan eta gure hirian lanean ari diren GGKEekin jardutea, parte hartuz eta informazioa emanez.



A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkarria.
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorra.
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da Iruñean egin beharreko Unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak (USJ) –biztanle orori zein talde jakin batzuei zuzendua– beste hainbatekin batera finantzatzea. Jarduketa horiek hainbat gairi helduko diete: Hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerak, egoera horien zio eragileak eta egoera horietan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak. USJ hauek 2020an egingen dira.

2. Deialdiaren helburua:

Hegoaldeko herrialdeen urritasun-egoerarekin, egoera horietara bultzatu dituzten zergatiekin eta komunitate horiek arazok gainditzeko egiten ari diren ahaleginekin zerikusia duten alderdien gainean sentsibilizatu eta prestatzea, halako moduz non Iruñeko herritarren artean engaiamendu solidarioko jarrerak bultzatuko baitira, Ipar-Hegoko harreman bidezkoagoen eta berdintzaileagoen alde.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

- Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea.
- 2020an hasia, gehienez ere hiru hilabeteko epean, dirulaguntza entitate eskatzaileari ordaindu zaion egunetik aitzina. Dena den, proposatutako jarduketak 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko dira.
- Jarduerak izaera irekia eta publikoa izan beharko dute, eta Iruñean egingen dira.
- Behar bezainbeste garatuta aurkeztea helburuen, emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa.
- Modu egokian informatzea proiektua gauzatzeko ardura duen entitateari buruz (helburuak, lan-esperientzia, etab.).
- GGKE eskatzaileak ezaguera zabala erakutsi behar du proiektuaren eta hura gauzatzeko moduaren gainean, bai eta proiektua behar bezala gauzatzeko behar diren material mota eta pertsona kopuruaren gainean ere.
- Jarduera ikastetxe batean edo hezkuntza ez arautuko gune batean garatuz gero, ikastetxearen edo dena delako gunearen zuzendaritzaren erabakia atxiki beharko zaio dokumentazioari, non adierazi beharko baita jarduera hori espresuki babesten duela, eta diru-laguntzarik jasoz gero, gauzatu nahi duela.

Deialdi honen xedetik kanpo geratuko dira:

- Garapeneko edo Larrialdi Humanitarioko beste proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.
- Entitate eskatzailearen barne-funtzionamenduak sortutako jarduerak: barne prestakuntzako jarduerak, buletinaren edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpena, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

BAI EZ

Deialdi honetako eskaerak baloratzeko honako irizpide hauek erabiliko dira:

- Ekintzen planteamendu teknikoari dagokionez (55 puntu bitarte), honako hauek:
 - Proiektuaren egokitasun-maila deialdiaren xedeetara.
 - Proposatutako jarduketaren ingurunearekiko txertatze-maila.



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Egingo diren jarduketei buruz emandako informazioaren zehaztapen-maila.
- Koherentzia-maila honako hauen artean: jarduketaren justifikazioa, ezarritako helburuak, proposatutako jarduerak eta aurreikusitako aurrekontua.
- Erabili beharreko baliabideen eta egin beharreko jardueren egokitasuna.
- Proposatutako ekintza gauzatzeko benetako bideragarritasuna.

b) Iruñean lanean ari diren GGKEek bultzatutako proiektuekin lotutako komunitateen egoeraren inguruan sentsibilizatzen duten ekintzak (10 puntu bitarte).

c) Hegoaldeko herrialde/herrietan bizi diren egoeren inguruko azterketa eta hausnarketa sustatzen duten ekintzak: Ipar-Hego desparekotasunak, egoera genero, ingurumen, giza-eskubide, kultura-identitate eta abarri dagokienez (13 puntu bitarte).

d) Ekintzaren xedea direnen parte-hartze aktiboa eragiten duten proiektuak, harremanak bultzatuz Hegoko taldeekin eta erakundeekin (10 puntu bitarte).

e) Kontuan hartu beharreko beste irizpide batzuk (12 puntu bitarte):

- Ekintzaren eragina: zenbat pertsona sentsibilizatzea aurreikusten den, modu zuzenean zein zeharka.
- Hegoaldeko pertsonen eta eragileen parte-hartzea proiektuan.
- Genero-ikuspegiaren txertatzea jarduerak gauzatzekoan.
- Jardueran tokiko boluntarioak engaiaturik egotea.

Proiektuek, diru-laguntza jasotzeko, gutxienez 60 puntu lortu beharko dituzte.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 9.600 €

Atal honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, deialdi hau ebazten denean Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programak 2020an egiteko dituen beste zenbait jarduera gauzatu ezean, jarduera horietarako aurreikusitako kopuruak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira. Horrek ez du berekin ekarriko deialdi berria egitea. Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta eskabideak aurkezteko epearen barruan egin duten entitateak.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 71/23930/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Gehienez ere 1.200 € emanen dira.

Entitate eskatzaile bakoitzak garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduketa bat egiteko diru-laguntza jaso ahalko du.

Jarduketa batek, diru-laguntza jasotzeko, gutxienez 60 puntu lortu beharko ditu. Puntuazio hori gaindituta, diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 100ekoa izanen da, betiere deialdiak gehienez baimendutakoa mugatzat hartuta eta kreditu eskuragarririk badago.

Puntuazioa zehazteko, deialdi honen B.4) puntuan adierazitakoa kontuan hartuko da.

4. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	9.600 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		



D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke dirulaguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezain debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izan beharko dute.

b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

c) Xede izatea, espresuki, garapenaren aldeko lankidetzari eta herrien arteko elkartasunari lotutako jarduerak egitea.

d) Iruñean edo Iruñerrian edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra.

e) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuen eta lan eskarmentuaren berri.

f) Halako egitura bat edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala bere helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

g) Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Programaren deialdi honetan zein besteren batean aurretik beste dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki Deialditik kanpo geratuko dira.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

a) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea. Proiektu bat aldatzeko eskabidea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) atalaren arabera.

b) Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak: BAI EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

Oroitzapen-plakak.

Aipamenak hedabideetan.

Beste batzuk:

- Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluaekin bat: BAI EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira. Aldaketa horiek Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinarazi beharko zaizkio baloratu ditzan eta, behar izatera, onetsi ditzan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio unitate kudeatzaileari (Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programari), aldaketak eragin dituzten inguruabarrak gertatu eta gehienez ere 15 eguneko epean. Unitate kudeatzaileak aldaketak onetsi beharko ditu, balorazioa egin ostean.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Dirulaguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela,



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskakerak aurkezteko epea:

Eskakera aurkezteko epea Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko du, kasu honetan 2019ko urriaren 25era bitarte, betiere funts erabilgarririk izanez gero.

Jarduerak egin baino hilabete lehenago gutxienez aurkeztu behar dira eskaerak.

Deialdi hau argitaratu baino lehenago egindako jardueren kasuan, salbuespenez, eskaerak aurkezteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izanen da, behin oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkarri dela egiaztatzen duen pertsona batek– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskinako ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskakera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nor eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiri dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Eskakerak telematikoki ere aurkeztu daitezke, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es) argitara emandako pertsona juridikoendako Dirulaguntzen eskaera elektronikoa delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T letretan aipatutako eranskinak.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkarriaren nortasuna egiaztatzeak.

- Entitatearen estatutuak.

- Egiaztagiria, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzeko, betiere dokumentazioa egunean edukita eskaerak aurkezteko mugaegunean.

- GGKE eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.

- Entitate eskatzailearen legezko ordezkarria nor den aipatzea eta horren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaporte edo antzekoa)..



BANAKAKO EBALUAZIOA

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarreak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitorpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Memoria bat, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori V. Eranskinen inprimakiarekin bat aurkeztu beharko da. Memoriaz gain, laburpen-orri bat aurkeztu beharko da, formatu digitalean, honako alderdi hauek jasota: aukeratutako gaiak, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jardueren deskribapena, zein talderi eta eragile parte-hartzaileri dagoen zuzenduta, jarduerak non eginen diren, eta aipamen labur bat entitate eskatzaileak garapenaren aldeko sensibilizazio eta hezkuntzako esparruetan izan duen ibilbidea eta eskarmentua azalduta.

g) Aurrekontu banakatua, jarduketa garatzeko gastuekin eta diru-sarrerekin, bai eta entitateak paratzen dituen baliabideak eta beste erakunde edo entitate batzuei eskatu edota horiek emandako diru-laguntzak ere aipatuta.

h) Jarduera ikastetxe batean edo hezkuntza ez arautuko gunen batean eginez gero, deialdi honetako B.3) puntuan galdatzen den erabakia erantsi beharko zaio dokumentazioari, non ikastetxeko zuzendaritzak adieraziko baitu jarduera hori espresuki babesten duela eta gauzatu nahi duela.

i) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak eta bestelakoak).

j) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, eguneratua –aurreko urteetan aurkeztua izanagatik ere–, betiere datak eguneratua eta eskaerak aurkezteko epemugatik hurbilekoa behar duelarik. Eredua erantsi da (IV. Eranskina).

G.4 puntuko d) letra ez da aplikagarria deialdi honi dagokionez.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) puntuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, ebazpen-proposamena Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programaren Txosten Teknikoa ikusi eta gero emanen da.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere 10 eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala. Halako kasuetan, eskaera zuzendu den eguna joko da sarrera-datatzat.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 3 hilabete.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu:

- Jarduera hedatzeko gastuak.
- Garraioa eta materialen aseguruak (erakusketarik eginez gero).
- Hitzaldiak (kaxetak, egonaldiak, hizlarien bidaiak eta dietak).
- Lokalen alokairua (ahal dela lokal publikoak).



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Aipatutakoekin zerikusirik ez duten beste gastu batzuk, zeinak bat etorri beharko baitira oinarri hauen xedearekin eta gainontzeko xedapenekin. Entitateak gastu horien berri eman beharko du alde aurretik, eta Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzeta Programaren berariazko oniritzia izan beharko du, dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastu gisa aintzat har daitezzen.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen (Ñ.2) puntuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen:

- Proiektuak berekin ekar ditzakeen administrazio- eta kudeaketa-gastuak. Gastu horiek entitate onuradunak finantzatuko ditu bere ekarpenen edo beste bide batzuetatik jasotako ekarpenen bidez.
- Entitate eskatzailearen barne funtzionamenduak sortutako jarduerak (barne prestakuntzako jarduerak, aldiari aldiko buletin edo entitatearen ohiko jardueren hedabideen argitalpenak, entitatearen bilerak edo barne topaketak eta abar).
- Garapenaren aldeko edo larrialdi humanitarioko proiektuetarako dirua biltzea helburu duten sentsibilizazio-jarduerak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:

Proiektua gauzatzeko dagoen epe bera, zeina deialdi honen B.3) puntuan adierazi baita.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoa:

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoarekin bat.

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: Kasu bakoitzean egin beharreko ekintzak zenbat jo eta horren % 10.

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honetan, dirulaguntza bateraezina izanen da Garapenaren aldeko Lankidetzako Iruñeko Udaleko beste udal dirulaguntzekin, urte berean eta jarduera berarako baldin bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera



BANAKAKO EBALUAZIOA

edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren % 100 aldeztatik ordainduko da, ordainketa bakar batean.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aldeztatuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.



Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduarekin bat).

1. Diruz lagundutako GGKEek gauzatutako proiektuari buruzko amaierako txosten deskriptibo eta finantzarioak aurkeztu beharko dituzte Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean edo edozein erregistro osagarritan.

2. Txostenean, honako agiri hauek jaso beharko dira:

a) Diru-laguntzen xedea den jardueraren memoria, non banakaturik zerrendatuko baitira diru-laguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua, VI. eranskinarekin bat.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, hala jasotako diru-laguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez (VI. eranskina).

c) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak –entitate jaulkitzaileak behar bezala sinaturik–, nominak, tributuak eta Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute. Modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

- Justifikazio-agiriek jatorrizkoak izan beharko dute.

- Fakturak indarra duten legeen arabera jaulki beharko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren edo sozietatearen izena eta IFZ, fakturaren jaulkitze data, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), jaulkitzailearen sinadura eta zigilua, eta ordaintzeko modua. Inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutxako tiketak.

- PFEZren atxikipena eta ordainketa justifikatu beharko da, autonomoen kasuan.

d) Faktura edo beste ordainketa-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

e) Hartzailearen egiaztatzea, Udalarenaz besteko diru-laguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere.

f) Diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa– (kartelak, liburuxkak, argazkiak, txostenak, katalogoak, argitalpenak, etab.).

3. Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) klausulan aurreikusitako onuradunen betebeharrak galarazi gabe.

4. Diru-laguntzaren xede diren proiektuei kontrola eta jarraipena egiten ahalko zaie proiektuaren garapenaren edozein unetan, eta proiektuaren ardura duten GGKEek Iruñeko Udalak eskatutako edozein argibide edo agiri aurkeztu beharko dute.

5. Diruz lagundutako GGKEek justifikazio-txostena aurkeztu eta gero, Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Programak Deialdiaren jarraipen txosten bat egingo du. Txosten horretan jasoko eta baloratuko dira hala egindako jarduketak nola diruz lagundutako proiektu guztien



justifikazio ekonomikoa. Txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, onets dezan.

- Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:
Bestelako edukirik: BAI EZ
- Justifikazio-kontu erraztua:

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):
Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:
Moduluaren unitate-kostua:
Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Dirulaguntza justifikatzeko epea hilabetekoa izanen da, V. Eranskinean (Jarduketa aurkezteko inprimakia: A.1) Aurreikusitako jarduketaren laburpena) agertzen den "Jarduketaren amaiera-data" gisa agertzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Deialdi hau argitaratu baino lehenago bukatutako proiektuendako justifikazio-epea hilabete batekoa izanen da, dirulaguntzaren ebazpena eman eta hortik aitzina.

Klausula honetan jasotako justifikazio-epeak betetzea galarazten duten arrazoitutako kausarik izanez gero, epe hori luzatzeko eska daiteke, baldin eta horrekin ez badira hirugarrenen eskubideak kaltetzen. Eskaera idatziz helarazi beharko zaio Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Programari justifikazioak aurkezteko epea amaitu baino lehen, luzapena eskatzeko kausak azalduta. Eskaera baliozkoa izan dadin, Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzaren Programaren aldeko balorazioa izan beharko du.

Eskatu den epe-luzapena eragin duten inguruabarretara doitu da.

Justifikazioa ez bada adierazitako epeetan aurkezten, dirulaguntza itzuli beharko da. Horretarako, itzulketa-prozedura bideratuko da.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZIOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiertako batek ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

1. N.2) puntuari adierazitako epean dokumentazioa ez aurkeztea, aurretik Udalak eskatuta.

2. Edozein zio dela medio diruz lagundutako gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira Iruñeko Udalak bere organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe, ez egindako gastutzat hartuko dira.



P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA

V. ERANSKINA. UNEAN UNEKO SENTSIBILIZAZIO-JARDUKETAK AURKEZTEKO FORMULARIOA

VI. ERANSKINA. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK JUSTIFIKATZEKO FORMULARIOA

VII. ERANSKINA. AGIRIAK KONTSULTATZEKO BAIMENA.